

## Antxiñako fotografixak





# Lehenengo KORRIKA

**A**pirilaren 14an iritsiko da Oñatira KORRIKA-17a. Aurretik, baina, Korrika Eguna (apirilak 9) eta Korrika Txikia (apirilak 13) ospatuko dira, bi urtetik behin Euskal Herria zeharkatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia girotzen joateko.

Asmo horrekin berreskuratu ditugu geuk ere KORRIKA-ren lehenengo edizioiko argazkiak. Gogoratu, Oñatin hasi zela lehenengo edizio hura, 1980ko azaroaren 29an. Euskaltzaindiako idazkari Jose M<sup>a</sup> Satrustegik eraman zuen lekukoa hasierako metrotan, eta, ondoren, herriko agintariak eta beste hainbat elkartetako ordezkariak.

Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina, hala ere, herri-tarrak kalera irten ziren euskararen alde. Aloña Mendi kirol elkarteko ordezkariak eta Pikupekoak ageri dira argazkietan lekukoa eramaten. Beste bi argazkiak, KORRIKA girotzeko antolatu zen jaialdikoak dira.

*Jesus Mari Arzuaga udal funtsatik eskuratu ditugu argazkiak*



**EGUR-LAN**

ARROZTEGIA

- Leihoak
- Ateak
- Altzariak
- Tarimak
- Era guztietako egur lanak

Berezaio Industrialdea • Tel./faxa.: 943 78 14 59  
OÑATI (GIPUZKOA)

**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20